

Elias  
**CANETTI**

*IBON URIBARRI ZENEKORTA*

**Mihia aske**



L I T T E R A T U R A U N I B E R T S A A L A

erein & igela

ELIAS CANETTI

*Mibia aske*  
*Gaztaro baten istorioa*

Ibon Uribarri Zenekorta  
*Itzultzailea*

erein & *igela*

# Jatorrizko izenburua:

DIE GERETTETE ZUNGE

*Liburu bonen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da.*

© 1977 Carl Hanser Verlag München Wien

Liburuaren azala eta diseinua: Antton Olariaga

© Itzulpenarena: 2013, Ibon Uribarri Zenekorta

© Argitalpen honena: 2013, EREIN eta IGELA argitaletxeak

Inprimatzailea: Itxaropena, S.A.

Ale kopurua: 800

ISBN: 978-84-9746-815-2

Legezko Gordailua: S.S. 1771/2013



ELIAS CANETTI (1905-1994)

## HITZAURREA

Elias Salomon Canetti Rustschuk-en jaio zen 1905ean (gaur egun Pyce/Ruse izena du hiriak) Danubioko behe ibilguko portu-hiri bulgariar batean turkiar jatorriko familia sefardi baten altzoan, eta Zürich-en hil zen 1994an, eta, beraz, Danubioren iturbururik ez oso urrun. Bitartean bizitza gorabeheratsua izan zuen zenbait herrialdetan, eta horren ondorioz, Canettiz hitz egiterakoan, gehienetan ez da haren herritartasunik aipatzen, alemanez idazten zuela baizik. Beraz, XX. mendean European alemanez idazten duen jatorri juduko idazlea dugu Canetti.

Lehen haurtzaroa Rustschuken igaro zuen eta sefardia izan zuen ama hizkuntza (bulgariara ere ikasi zuen, baina gero galdu egin zuen hizkuntza hori). Manchesterren hasi zen eskolan ingelesez (eta frantsesa ere ikasten hasi zen), baina Ingalaterrako lehen egonaldia ez zen hain luzea izan; izan ere, aita hil zitzaion eta familia Ingalaterratik joan zen. Vienan eta Zürichen jarraitu zuen eskolan alemanez; eta Frankfurten amaitu zuen hezkuntza ertaina, 1923an. Ondoren, Vienan egin zituen kimika ikasketak eta doktoretza; han Veza Taubner-Calderon-ekin ezkondu zen, sefardi jatorrikoa hori ere; emazteak ezizenez idazten zituen artikulua aldizkari ezkertiarretan, baita literatur lanak ere, baina gero senarraren itzalean geratu zen haren lana; Vienan Canettik Karl Kraus-en hitzaldiak entzun zituen lau urtez, eta erreferentzia nagusi bihurtu zitzaion idazle eta kazetaria.

Garaiko zenbait idazlerekin ere harreman estua izan zuen, hala nola, Robert Musil eta Hermann Broch, baita Alan Berg musikagilearekin ere. 1928an egonaldi labur bat egin zuen Berlinen, eta itzulpen lan batzuk egiteaz gain (Upton Sinclair egilearen hiru lan argitaratu ziren 1930-32 artean) Bertolt Brecht ezagutu zuen han: haren poesia miresten du, baina pertsonaia nazkagarri samarra gertatzen zaio, diruzalea, harroputza,... Weimar garaiko Berlin hura, bestalde, zoro-etxea iruditu zitzaion Viena lasaiagoaren ondoan, eta horrek eman zion lehen eleberria idazteko bultzada, *Die Blendung* [Liluramendua edo Autodafe]; lehena eta azkena. Testua 1930/31 artean amaitu zuen, baina argitaragabe geratu zen hainbat urtez; bitartean, lehen bi antzerki lanak idatzi zituen, *Hochzeit* [Ezteia] eta *Komödie der Eitelkeit* [Hutsalkerien komedia]; azkenean, 1935ean agertu zen eleberria ere. Kafkaren eragina nabarmena da hor, boterearen kritika izango da harengandik jasotzen duen eraginaren mamia gerora Nobel saria jasotzerakoan aipatu zuen moduan. Vienako garaian bildu zuen, era berean, masaren kontzeptuaren gainean saio bat idazteko asmoa, baina ez dauka horretarako aukerarik: 1938an Austria Alemania naziari lotzen zaionean (*Anschluss*), ospa egin zuen Frantziara lehenik (ez zuen artean lotura handiegirik Frantziarekin, han bizi zen ama urte bete lehenago hil baitzen), eta azkenean Londresen egokitu zen emaztearekin.

Londresen bizi zen Canetti 1939 eta 1971 artean, eta britainiar herritartasuna ere lortu zuen 1952an. Bigarren Mundu Gerra dela eta, hasieran ez du literatur ekimen publikorik izango, baina *Masse und Macht* [Masa eta boterea] saio-liburua prestatzeko ikerketa lanetan ariko da. Gerra amaituta, *Die Blendung* eleberriaren ingelesezko eta frantsesezko itzulpenak egin ziren, eta horrek izen pixka bat eman zion, eta garaiko idazle

eta intelektual ospetsuak ezagutzeko aukera, Dylan Thomas, Bertrand Russell, eta abar. Ondoren, *Die Befristeten* antzerki lana taularatu zen ingelesera itzulita, 1956an, eta 1960an, azkenean, *Masse und Macht* asmo handiko saioa argitaratu zuen Alemanian; halere, hasiera batean oihartzun gutxi izango du lan horrek. 1963an emaztea hil zitzaion. Ondoren, idazle gisa ezagunagoa izaten hasten da, bere eleberriaren hirugarren edizioak arrakasta du eta antzerki lanek eskandaluak sortzen dituzte han eta hemen (1964ean hiru antzerki-lanak, *Die Befristeten*, *Hochzeit*, *Komödie der Eitelkeit*, liburu batean jasota argitaratu ziren). 1971an Georges anaia hil zen eta abagune horrek bultzatu zuen Canetti bere zahartzaroko lan nagusiarikik: autobiografia. Hera Buschor suitzarra ezagutu zuen garai hartan, bera baino askoz gazteagoa, eta Londreseko etxea saltzen ez duen arren, Suitzan igarotzen du denbora gehiena harekin, nerabearoko Zürichen, eta alaba ere izan zuen ezohiko adinean, 1972an; horrela, familia bizitza ohikoagoa, lasaiagoa izango du ordutik aurrera.

1977an argitaratu zuen hemen aurkezten dugun liburua, autobiografiaren lehen atala; Canettiren lehen liburu arrakastatsua izan zen. 1981an Nobel saria jaso zuen ezustean, ez baitzen idazle hain ezaguna; lehenago ere jaso zituen, halere, beste hainbat literatur sari, horien artean, Großer Österreichischer Staatspreis für Literatur, 1967an, Georg-Büchner, 1972an, eta beste hainbat sari. 1988an bigarren emaztea ere hil zitzaion minbiziak jota. Ondoren, autobiografia osatu zuen, eta azken urte horietan lehen emaztearen hiru literatur lan ere editatu zituen, horrela harekiko zorrak kitatu nahian edo. 1994an hil zen Canetti eta Zürichen dago lurperatuta James Joycend aldameanean. Bere izkribuak eta artxibo pribatua Züricheko liburutegi nagusian daude gordeta, baina 2024 arte publikoari ez irekitze-

ko agindua utzi zuen Canettik. Argitaratu gabe geratu zen testu asko agertu dira azken urte hauetan, baina oraindik material asko dago argitaragabe, eta ez da hain erraza izango artxiboa irekitzen ez den arte Elias Canettiren irudi oso bat eskaintzea.

Canettiren literatur ekoizpena ez da oso zabala, eta horregatik are harrigarriagoa da hain askotarikoa izatea. Hasieran eleberri bat eta bakarra idatzi zuen eta hiru antzerki-lan, literatura molde berritzaileak baliatuz. Ondoren, asmo handiko saio bat, eta *Oharpenak* (*Aufzeichnungen*, aforismo bildumak) eta bidaia liburu nagusi bat. Eta zahartzaroan autobiografia izan zen lanaren erdigunea, *Oharpen* bilduma gehiago ere egin zuen arren. Ez dut aipatu gabe utzi nahi, hainbat lanen irakurketak ere utzi zituela grabatuta, eta horietako batzuk editatu dituztela<sup>1</sup>. Canettik berak adierazi zuen ez zuela behin eta berriz liburu berbera idazten duten idazle horietako bat izan nahi, eta *Verwandlung* [itxuraldatze] kontzeptua erabiltzen du bere asmoa ezaugarritzeko, zurruntasunari ihes egiteko estrategia moduko bat. Ondorioz, ez estiloan, ez ideologian, ez da erraz egokitzen korrante, talde edo belaunaldi jakin batean. Kritiko batzuek azpimarratu dute lehen garaiko Canetti ilunagoa eta ezkorragoa dela, eta ondoren pixkanaka baikorragoa izaten hasten dela, argiagoa; literatur moldetan ere berritzaileagoa hasieran, sotilagoa ondoren, batzuen arabera konbentzionalagoa.

Lehen garaia ezaugarritzen duen lan nagusia *Die Blendung* eleberria da. 1930/31 artean idatzi zuen, baina 1935ean argitaratu zen azkenean. Tartean bi antzerki lan argitaratu zituen,

1 Hemen entzun daitezke pasarte batzuk:  
<http://www.oesterreich-am-wort.at/trefferliste/aspect/czoyNToiZWxpYXMGY2FuZXR0aSBBTkQgZXg6b2Vhdyl7>



*Hochzeit* (1932) eta *Komödie der Eitelkeit* (1934). Eleberriaren harira kritika on batzuk jaso zituen arren (Thomas Mann-ek eskutitz bat idatzi zion zorionduz), lanak ez zuen harrera oso ona izan (Georg Steiner-ek oso iritzi txarra adierazi zuen geroago adibidez). Peter Kien pertsonaia nagusiaren figurak jakitunaren begirada auto-ironiko latza eraikitzen du, eta horrela idazketaren bidez norberaren nahasmendua gainditzen saiatzen da Canetti, goi kulturaren gurtzapenaren ikuspegi errukigabe baten eskutik.

Liburu biltzaile porrokatuak harreman zaila du mundua-rekin, emaztearekin eta beste hainbat pertsonaia bitxirekin, eta azkenean zorutzen doa eta liburutegiari eta bere buruari su ematen dio. Kontu izan behar da garai hartan naziak hasiak zirela liburuak plazetan erretzen, eta horrek halabeharrez Heineren hitzak ekartzen dizkigu gogora: “Liburuak erretzen diren tokian gizakiak ere erretzen dira azkenean”. Kasu honetan liburuak egiatan dira gizakiak Peter Kien zoratuaren begietan.

Istoriaa mendean duen idazlea izateari itzuri egin nahi dio Canettik: belarriari eskaintzen dio nagusitasuna, Vienako pertsonaia muturrekoak osatzen ditu urtetako elkarriketetatik abiatuta, pertsonaia bakoitzaren “hots-mozorroa” osatzen du, eta horrela Viena zoro baten kaleidoskopio ikuspegi bat ematen du (gai hori bera landuko du gero Marrakexko bidaia liburuan ere). Pertsonaiak horrela garatuz, errukigabetasun efektu komiko eta groteskoa eragiten du aldi berean, eta elkar ezin ulertua eta bakartasuna azpimarratzen ditu. Hizkuntza, ohiko ikuspegiaren kontra (Hannah Arendt, Jürgen Habermas), ez da komunikazio tresna hutsa, jatorriz botereak guztiz kutsatzen duen tresna baizik (Hegel).

*Die Blendung* eleberriak [liluramendua, itsualdia], esan bezala, ez zuen harrera oso beroa jaso hasieran. Txekierara itzuli

zen 1937an eta Canetti Pragan izan zen. Baina Austriak naziekin bat egin zuen, eta gerra gainean zenez, atzerrira ihes egin behar izan zuen, eta horren guztiaren ondorioz testua ahaztuta geratu zen alemana hitz egiten duten herrialdetan. Geroago, Ingalaterran, gerra amaituta, ingelesez agertu zen *Auto-da-Fe* izenarekin 1946an, eta *The Tower of Babel* izenarekin 1947an Estatu Batuetan, eta horrela liburuaren eragina hedatzen hasi zen. 1948an Alemanian bigarren edizioa egin zen, baina han ez zuen oihartzunik izan, gerra ondoko Alemania ez zegoen horrelako literatura jasotzeko egoeran. 1949an frantsesez agertu zen *La tour de Babel* izenburuarekin. Urte batzuk geroago, 1963an, hirugarren aldiz agertu zen alemanez, eta orduan izan zuen harrera zabal-zabala literatur munduan, eta horrek bihurtu zuen Canetti idazle ospetsu. Lanaren eragina oso zabala izan da, idazle askok aipatu du inspirazio iturri moduan. Bernhard-ek adibidez gogor kritikatu zuen Canetti, baina kritika horiek aitaren kontrako matxinadaren kutsua dute, ematen baitu *die Blendung* eredu hartuta behin eta berriz lan berbera idatzi duela Bernhardek.

Erdiko garaia, Londreseko garaia, ezaugarritzen duen lan nagusia *Masse und Macht* saio zabala da. Vienatik zekarren egitasmoa Canettik, hamar urteko ikerketa lana egin zuen gero Londresen eta beste hamar urte eman zituen testua idazten. 1959an amaitu eta hurrengo urtean argitaratu zen. Egia da aldi berean *Aufzeichnungen* idazten hasi zela (oharpen aforistikoak Lichtenberg hartuta eredu), gero hainbat liburutan eman zituenak argitara hurrengo urteetan, bere produkzioaren beste parte interesgarri bat osatuz. *Masse und Macht* lan nagusian soziologia, antropologia, filosofia, psikologiako osagaiak hartuz masaren eta boterearen kontzeptuen azterketa fenomenologiko zabala egiten du idazleak, hainbat iturri, hainbat garai eta kulturako

errealitateak aztertuz. Masa eraketez gain, masa sinboloak ere aztertzen ditu, hala nola, basoa (*Wald*), eta horren sinbologia aleman kulturaren.

1920 hamarkadako zenbait bizipenetan oinarrituta eta Le Bon, Freud eta Ortega y Gasset-en azalpen klasikoek asebate ez zutelako idatzi zuen lana Canettik. Ez zuen masaren ikuspegi negatiboa, ohikoa zenez, oinarrizko fenomeno moduan aztertzen du, non banakoak beldurra gaindituz askatasuna berreskuratzen duen (*Entladung* deitzen dio prozesu horri). Gainera, masa mota ezberdinak daude: hasteko, masa irekiak eta itxiak; eta, gainera, xeheago hainbat masa mota berezi deskribatzen ditu Canettik garai eta kultura askotako adibideak jasoz. Masaren ezaugarrietako bat hazteko bultzada da; gainera, barnean berdintasuna nagusitzen da; bestalde, barne eremu hori trinkoa da; eta, oro har, masak norantza bat behar du. Masak, gainera, bortizki jokatzeko du kanpoan geratzen den guztiarekin bere burua bermatze aldera.

1962an eztabaida ezagun bat izan zuen Adornorekin liburuaren harira irratsaio batean. Adorno ez zegoen guztiz pozik Canettiren lanarekin, irudimenari leku gehiegi ematen omen diolako, subjektiboa omen delako, eta arrazoizkotasuna ez omen delako irizpide nagusia. Halere, esan behar da Canitterena ez dela tratatu filosofikoa, ez zuela asmo horrekin idatzi, baina aldi berean ez dela inondik ere irrazionalismo hutsean murgiltzen: ikuspegi fenomenologikoa du kritikoa baino.

Eta azken aldia ezaugarritzen duen lan nagusia autobiografia da. Oroimenen eraikuntzari ekiten dio Canettik, gogoan izanik Historiak gertatu dena gertatu behar zuena bezala agertzeko joera duela eta horrekin indarraren alde egiten duela; horregatik, Canettik istorio bat kontatzen digu, gaztaro bat du kontakizun. Hemen aurkezten dugun testua Canettiren zahar-

tzaroko literatura ekimen nagusiaren lehen atala da, eta bertan hamasei urte bete zituen artekoak hartzen ditu hizpide Canettik. 65 urte zituenean ekin zion idazketari, bere izena ezagunago egin zen garai batean, eta izatez lehen publiko-arrakasta izan zen liburua. Georges anaiaren gaixotasunak bultzatu zuen lan hau idaztera eta hari eskaintzen dio lehen atala, nahiz eta azkenean ez zuen irakurtzeko aukerarik izan, lehenago hil baitzen. Heriotza da, hain zuzen, Canettiren lana ezaugarritzen duten gakoek artean nagusia ziurrenik. XX. mendeko autobiografia interesgarrienetakoa dela esan da, haurtzaro eta nerabezaro europar baten lekukotza. Gottfried Keller saria jaso zuen lanak, eta hori are adierazgarriagoa da liburuan idazle horri eskainitako atalaren argitan.

Liburuak egitura nahiko ohikoa du, hiri eta egoitza nagusiak ardatz hartuta (garai postmodernoetan forma aski arrunta hartzen du lanak, nahita haize kontra). Bost atal ditu liburuak, beraz: Rustschuk (1905-1911), Manchester (1911-1913), Viena (1913-1916), Zürich - Scheuchzerstrasse (1916-1919) eta Zürich - Tiefenbrunnen (1919-1921). 1981eko abenduaren 10ean Nobel saria jaso zuenean, eragin zioten idazle nagusiak aipatu aurretik ere (Karl Kraus, Kafka, Musil eta Broch), asko azpimarratu zituen Canettik jainko-hiriak (Stadtgottheit), Viena, Londres eta Zürich.

Aita, ama eta familiako beste hainbat kide hartzen ditu hasieran Canettik hizpide pasadizoetan oinarritutako eta xehe-tasunez betetako testu batean (xehe-tasunei euren duintasuna itzultzea, hori omen zen agian bere lorpen bakarra). Harrigarria ere bada, liburua Georges anaiari eskaini arren, nolatan baztertu zituen bi anaia gazteagoak haurtzaroan. Gainera, lehen irakurketak, ikaskideak, maisuak eta lehen literatur erreferentziak azaltzen dizkigu Canettik.

Bi gai errepikakor nabarmenduko nituzke: hizkuntza, hizkuntz aniztasuna, itzulpena (Georg anaia, George bihurtzen da gero eta, azkenean, Georges behin-betiko izena hartzen du) eta elkar ezin ulertzea, batetik. Judu jatorrikoa izanda, alemanari eutsi zion Canettik, hainbatek literatur hizkuntza aldatu zuenean. Horrela dio 1942-1948 urtetako *Obarpenetan*, 73. orrian: “Alemanak jarraituko du izaten nire gogoaren hizkuntza, judua naizelako hain zuzen”. Ama hizkuntza da alemana Canettirentzat zentzu oso berezian, amaren kultur hizkuntza delako, eta modu behartuan ikasi zuelako haurtzaroan amaren eskutik, eta hizkuntza horretan ekin ziolako amarengandik askatzeko borrokari. Bestetik, heriotzaren bizipena da gai nagusietako bat. Aitaren heriotza goiztiarra, Canetti bera bizi arriskuan jarri zuen istripua, Lehen Mundu Gerrako sarraskiak, eta abar. Beti azpimarratu du Canettik heriotzaren kontzientziak gizakiarengan duen eragina. Heriotza alde batera baztertuta ezkututzeak bidea errazten omen die botere egitura totalitarioei.

Lehen atal honek jarraipena izan zuen: bigarren atalak, *Die Fackel im Ohr* (1980), Vienako lehen urteak hartzen ditu hizpide, bereziki Karl Kraus idazlea (izenburuan horrek argitaratzen zuen aldizkari ezagunari egiten zaio erreferentzia), eta hirugarrenak, *Das Augenspiel* (1985), Vienako pertsonaia ezagunen erretratuak eskaintzen dizkigu, eta amaren heriotzarekin amaitzen da. Geroago, laugarren ataltzat jotzen dena ere argitaratu zen Canetti hil ondoren, *Party im Blitz* (2003), amaitu gabe utzi zuen zirriborro batean Londreseko lehen urteen berri ematen digu.

*Ibon Uribarri Zenakorta*

## Beste itzulpenak

- La lengua absuelta*, 1980,  
El aleph, Barcelona (Lola Díaz itzultzaile)
- La lengua salvada*, 2005,  
DeBolsillo, Barcelona (Genoveva Dieterich itzultzaile)
- La llengua salvada*, 1985,  
Edicions Proa, Barcelona (Carme Gala Fernández itzultzaile)
- La Langue sauvée*, 1981,  
Paris, Albin Michel (Bernard Kreiss itzultzaile)
- The Tongue Set Free*, 1979,  
New York, Seabury (Joachim Neugroschel itzultzaile)

## Bibliografia gehigarria

- Elias Canetti. *Gesammelte Werke*.  
10 Bände in Einzelausgaben, 1992–2005, München, Hanser.
- David Roberts. *Kopf und Welt*.  
*Elias Canettis Roman "Die Blendung"*, 1975, München, Hanser.
- Dagmar Barnouw.  
*Elias Canetti zur Einführung*, 1996, Hamburg, Junius.
- Sven Hanuschek.  
*Elias Canetti. Biographie*, 2005, München, Hanser.
- Yousef Ishaghpour.  
*Elias Canetti. Métamorphose et identité*, 1990, Paris, La Différence.
- Raquel Kleinman Bernath.  
*Elias Canetti: luces y sombras*, 2005, Madrid, Biblioteca Nueva.

ELIAS CANETTI



*Mibia aske*  
*Gaztaro baten istorioa*

*Georges Canetti gogoan*  
(1911-1971)



LEHEN ZATIA

# Rustschuk

1905-1911

## LEHEN OROITZAPENA

Gorriak gobernatzan du nire lehen oroitzapena. Neskatzan baten besoetan irtetan naiz ate batetik, gorria da aurrean dugun zorua, eta eskailera bat jaisten da ezkerretara, hori ere gorria. Gure parean, maila berean, ate bat irekitzen da eta gizon irribarretsu bat agertzen, niregana dator adiskidetsu. Ondo-ondora etortzen zait, zutik geratzen da, eta esaten dit:

– Atera mihia.

Mihia luzatzen dut, hark eskua patrikara sartu, sakelalabana atera eta zabaltzen du, eta mihitik gertu-gertu jartzen dit labanaren ahoa.

– Mihia moztuko diogu orain.

Ez naiz ausartzen mihia gordetzera, gero eta hurbilago dut gizona, aurki ukituko dit mihia labanaren ahoarekin. Azken unean, ordea, labana aldentuz esaten du:

– Ez dugu gaur egingo, bihar.

Labana bildu eta poltsikoan sartzen du.

Goizero irtetan gara atetik korridore gorrira, atea irekitzen da eta gizon irribarretsua agertzen da. Badakit zer esango duen eta haren aginduaren zain nago mihia ateratzeko. Badakit moztuko didala, gero eta izutuago nago. Horrela hasten da eguna, eta hainbat aldiz gertatzen da hori.

Nire baitan gorde nuen, eta askoz beranduago arte ez nion galdetu amari auziaz. Karlsbad-eko ostatuarekin lotu zuen

gorritasuna, han igaro genuen aitarekin hirurok 1907ko uda. Umezain bulgariarra ekarri zuten bi urteko haurra zaintzeko, hamabost urte ere ez zituen izango. Goizean goiz abiatzen zen haurra besoetan hartuta, bulgariara baino ez zuen egiten, baina ongi moldatzen zen Karlsbad jendetsuko bazter guztietan, eta ordu-orduan itzultzen zen beti haurrarekin. Behin mutil gazte ezezagun batekin ikusi zuten kalean, ez zen haren berri zehatzik emateko gai izan, kalean ustekabean ezagutu omen zuen. Aste gutxi barru jakin genuen gure pareko gelan bizi zela gazte hura ostatuan, korridorearen beste aldean. Noizean noiz harengana joaten zen neskaxa arin-arinka gauez. Neskaxaren ardura zutelakoan, berehalakoan itzularazi zuten nire gurasoek Bulgariara.

Biak, neskaxa eta mutil gaztea, oso goiz abiatzen ziren estatutik, horrela egingo zuten topo seguru asko lehenengo aldiz, horrela hasiko zen afera. Eraginkorra izan zen mutil hark labanarekin egin zidan mehatxua, hamar urtez gorde zuen kontua isilean haurrak.

#### SENDI HARROTASUNA

Beha Danubion dago Rustschuk, han etorri nintzen mundura, toki zoragarria haur batentzat, eta Bulgarian dagoela esanez hiriaren irudi lauso samarra eskaintzen dut, jatorri oso ezberdineko pertsonak bizi baitziren han, zazpi edo zortzi hizkuntza entzun zitezkeen egun bakar batean. Maiz landatik etortzen ziren bulgariarrez gain, turkiar ugari bizi zen hirian, euren auzoa zuten, eta auzo horren alboan zegoen gurea, judu espainiarrena. Greziarrak, albaniarrek, armeniarrek eta ijitoak

ere bizi ziren hirian. Danubioren beste ertzetik etortzen ziren errumaniarrak; errumaniarra zen nire inudea, baina ez dut haren gomutarik gorde. Errusiar gutxi batzuk ere baziren hirian.

Hautzaroan ez nintzen aniztasun hartaz jabetzen, baina etengabe jasotzen nuen horren eragina. Leinu jakin batekoak zirelako eta euren janzkera besteenetik bereizten zelako ditut gogoan pertsonaia batzuk. Sei urte haietan zirkasiar bat izan genuen etxean lehenik, eta, gero, armeniar bat zerbitzarien artean. Amaren lagun minena Olga zen, errusiarra bera. As-tean behin ijitoak etortzen ziren gure patiora, hainbeste non herri oso bat zirela ematen baitzuen; gero aipatuko dut airean nindutela beldurrez.

Danubioko portu zahar bat zen Rustschuk eta, beraz, bazuen nolabaiteko garrantzia hiriak. Nonahiko pertsonak erakartzen zituen portuak, eta ibaia izaten zen hizpide etengabe. Danubio izozten zen urte bakanei buruzko istorioak zebiltzan bolo-bolo, leren ganean ibai izoztua Errumaniaraino zeharkatzeari buruzkoak, lera-zaldiei orpoz orpo jazartzen zitzaizkien otso gosetiei buruzkoak.

Otsoak izan ziren inoren ahotan lehenengoz topatu nituen piztiak. Gizotsoak agertzen ziren baserri-neskatxa bulgariarrek kontatzen zizkidaten ipuinetan, eta gau batez ederki izutu ninduen aitak aurpegia otso-mozorro batez estalita agertu zenean.

Nekez asmatuko dut Rustschukeko lehen urte koloretsu haiek, orduko grinak eta izuak, egokiro irudikatzen. Rustschuk-en gertatu zen jada gerora bizi izan dudana guztia. Atzerri osoari *Europa* esaten zitzaion han, eta norbait Danubion gora Vienaraino joaten bazen, esaten zen Europara zihoala, behiala inperio turkiarra amaitzen zen tokian hasten zen Europa. Judu espainiarrak artean turkiar hiritarrak ziren gehienak. Ongi

moldatzen ziren turkiarrekin, Balkanetako eslaviar kristauak baino hobeto. Judu espainiarren artean asko merkatari aberatsak zirenez, erregimen bulgariar berriak harreman onak zituen haiekin, eta juduen laguntzat jotzen zen erreinaldi luzeko Ferdinand erregea.

Korapilatsu samarrak ziren espainiarren leialtasunak. Judu fededunak ziren, erlijio lagunartea axola zitzaien. Bizitzaren erdigunean zuten erlijioa, gehiegizko kartsutasunik gabe. Baina judu bereziak zirela uste zuten, tradizio espainiarra zela eta. Egotzi zituztenetik, oso gutxi aldatu zen mendeetan zehar euren artean erabiltzen zuten espainiera. Hitz turkiar gutxi batzuk mailegatu zituzten, baina agerikoa zen horien jatorri turkiarra, eta bazituzten ia beti horien ordeko espainiarrak ere. Espainieraz entzun nituen nik lehen haur abestiak, *romance* espainiar zaharrak entzuten nituen, baina aiurri espainiarra zen gorabehera nagusia, haur batentzat guztiz erakargarria. Gehiagotasun xalo batekin gutxiesten zituzten beste juduak, mespretxuz betetako hitza zen *todesco*, judu alemana edo askenazia. Pentsaezina zen *todesca* batekin ezkontzea, eta ez dut gogoan inoiz halako ezkontza nahastekaturik gertatu zenik haurtzaroan Rustschuken ezagun nituen edo aipatzen ziren familia ugarietan. Sei urte ere ez nituen izango aitonak ohar-tarazi zidanean etorkizunean halako ezkontza lotsagarririk ez egiteko. Baina kontua ez zen diskriminazio orokor horrekin amaitzen. Espainiarren artean, horrez gain, “etxe onekoak” zeuden, hots, aspalditik aberatsak zirenak. *Es de buena familia*, horiek ziren pertsona baten harrotasuna gehien puztu zezaketen hitzak, “etxe onekoa da”. Sarri, okitzeraino, entzun nuen hori amaren ahotan. Vienako Burgtheater antzokiarekin suhartzuta zebilen garaian eta nirekin Shakespeare irakurtzen zuenean, are askoz beranduago Strindberg orduko bere idazle kuttunena

aipatzen zuenean ere eragozpenik gabe esaten zuen etxe onekoa zela, ez zegoela hoberik. Ezagutzen zituen kultur hizkuntzen literaturak bere bizitzaren benetako erdigune bihurtu zituen emakume hark ez zuen kontraesanik nabaritzen unibertsaltasun suhar haren eta etengabe elikatzen zuen sendi harrotasun arranditsuaren artean.

Oraindik amari guztiz emanda bizi nintzen garaian ere –amak ireki zizkidan kulturaren ate guztiak, eta itsu-itsuan eta bihotzez jarraitu nintzaion–, jabetua nintzen kontraesan horretaz, mintzen eta nahasten ninduen, eta gaztaroko hitz-aspertu askotan hartu nuen hizpide eta aurpegiratu ere egin nion amari jarrera hura, baina horrek ez zuen den mendrenik ere hunkitzen. Amaren lainezak goiz aurkitu zituen bere ubideak, herratu gabe jarraitzen zituen, baina ezin ulertu nuen mehertasun hark gorde ninduen ni jatorriaren hantuste hartatik. Ezin ditut aintzat hartu leinu-harrotasun hori duten pertsonak, animalia exotiko baina nahikoa barregarriak iruditzen zaizkit. Neure burua kontrako aurreiritziz jantzita atzeman ohi dut, goi jatorriaz burgoitzen direnen aurka. Lagun izan nituen aristokrata bakanen aurrean ez entzunarena egin behar nuen kontua aipatzen zutenean, eta antzeman izan balute nolako lanak nituen hori egiteko, uko egingo zioketen gure adiskidetasunari. Beste aurreiritzietan dute sorburua aurreiritzi guztiek, eta euren aurkakoek eragindakoak dira ohikoenak.

Beraz, jatorri espainiarrekoa ez ezik leinu diruduna ere bazen amarena. Nire familian eta bereziki amarenean ikusi nuen nolako eragina daukan diruak jendearengan. Dirua gogotsuago bilatzen zutenak ziren okerrenak nire begietan. Diru irrikatik jazarpen maniara doan bideko geltoki guztiak ezagutu nituen. Elkar suntsitzen zuten anaiek diru irrikagatik auzi amaigabeetan, eta dirurik geratzen ez zenean ere auzie-

kin jarraitzen zuten. Ama hain harro zuen etxe *on* berbereko senideak ziren. Ama ere auzi haien lekuko izan zen, sarri hitz egiten genuen horretaz. Adimen zorrotzekoa zen, literatura unibertsaleko lan handietatik lortu zuen gizakien ezagupena, baita bere bizipenetatik ere. Ondotxo zekien zergatik eusten zion familiak bere burua larrutzeko ahalegin burugabe horri; eleberri bat idatz zezakeen aise horretaz, baina suntsiezina zen aldi berean familia horrexeko kide izateak eskuratzen zion harrotasuna. Maitasuna balitz, orduan ulertuko nukeen. Baina senitarteko asko ez zituen maite, suminduta zegoen beste batzuekin, mespretxatu egiten zituen hainbat; harro zegoen, ordea, familiaz, bere osoan hartuta.

Berandu ezagutu nuen ni neu ere ama bezalakoxea naitzela, familia utzi eta gizadiaren eremu zabalagoetara etortzen bagara. Gizakiak zibilizazioaren historian erabili dituen amarruak salatzen eman dut bizitzako zati ederrena. Amak bere familiako auziak bezain errukigabe aztertu eta analizatu dut nik boterea. Ez dago ia gizakiez eta gizadiaz esan ahal ez nezakeen gauza txarririk. Eta, hala ere, hain harro nago gizakiez eta gizadiaz non gauza bakarra gorrotatzen baitut benetan, haien etsaia, heriotza.

“KAKO LA GALLINICA”

OTSOAK ETA GIZOTSOAK

Maiz entzuten nuen hitz kartsu eta aldi berean goxo bat, *la butica*. Izen hori zuen saltokian ematen zuten aitonak eta bere semeek eguna. Gutxitan eramaten ninduten hara, artean umea nintzelako. Kale aldapatsu batean zegoen, Rustschukeko

auzo aberatsenaren talaia zuzen-zuzenean portuarekin lotzen zuen kalean. Kale hartan zeuden saltoki nagusi guztiak; hiru solairuko eraikin batean zegoen aitonarena, dotorea eta garaia iruditzen zitzaidan, muinoko etxebizitzak solairu bakarrekoak ziren eta. Jakiak saltzen zituzten handizka, usain zoragarria zuen saltoki zabalak. Zaku handi irekiak zeuden zoruan, hainbat ale motaz beteta, artatxiki zakuak, garagar zakuak, baita arroz zaku batzuk ere. Eskuak garbi nituenean, zakuan sartzen eta aleak ukitzen uzten zidaten. Sentipen atsegina zen, eskua alez betetzen, altxatzen, usaintzen eta aleak berriz hatzen artetik poliki-poliki erortzen uzten nituen; berriz eta berriz egiten nuen hori, eta saltokian beste hainbat gauza harrigarri zegoen arren, hori egiten nuen atseginen, eta ez zen erraza ni zakuetatik bereiztea. Tea eta kafea zegoen, txokolatea zen berezitasuna. Denetarik zeukaten kopuru handietan eta ederto paketatuta, han ez zen txikizka saltzen saltoki arruntetan bezala, zoruko zaku irekiak nituen batez ere gustuko, irispidean nituelako eta eskua sartzean ale kopuru handia uki nezakeelako, horiek nituen xede eta.

Jakiak zituzten saltokian batez ere, baina bestelakorik ere bazen. Pospoloak, xaboiak, eta argizariak ere bazeuden. Aiztoak, guraizeak, zorrotzariak, igitaiak eta segak ere bai. Herrixketatik erosketak egitera etortzen ziren baserritarrak zutik geratzen ziren luze eta tresneriaren zorrotza aztertzen zuten hatz-puntekin. Jakin-min handiz eta beldur apur batekin begiratzen nien, debekatuta nuen eta aiztoak ukitzea. Behin baserritar batek, nire aurpegia dibertigarria zitzaiolako edo, nire erpuru heldu, berearen ondoan kokatu eta bere azalaren latza erakutsi zidan. Baina inoiz ez zidaten txokolate puskarik oparitu, aitonak diziplina zorrotza ezartzen zuen atzealdeko bulego batetik eta dena handizka saltzen zen. Etxean, maitasuna



adierazten zidan aitonak, haren abizena neramalako, ponteko izena ere bai. Saltokian, berriz, ez ninduen begi onez hartzen eta ez zidaten han luze geratzen uzten. Aitonak agindu bat ematen zuenean, jasotzen zuen langileak ospa egiten zuen aire berean, eta noizean behin langile bat irteten zen saltokitik pakete bat eskuetan. Arropa txiroz jantzitako gizon adintsu argal bat maite nuen gehien langileen artean, beti irribarretsu zegoen arreta galduta. Mugimendu zehaztugabeak egiten zituen, eta ikarak hartzen zuen aitonak zerbait esaten zuen bakoitzean. Ametsetan zegoela zirudien, eta oso bestelakoa zen saltokian ikusten nituen langileen aldean. Beti zuen hitz eztiren bat niretzat; hain era nahasian hitz egiten zuen, ozta-ozta ulertzen bainion, baina asmo onekoa zela sumatzen nuen. Txelebon zuen izena, eta senide behartsu eta ezin ezgauzagoa zenez, errukiak eraginda zegoen han soldatapean. *Txelebon!*, zerbitzari bati bezala deitzen zioten beti, horrela dut gomutan; askoz beranduago jakin nuen aitonaren anaietako bat zela.

Hautsez beteta egoten zen gure patioko atetzarraren pareko kale jendegabea. Euri asko egiten zuenean, lokatz bihurtzen zen hautsa, gurpil arrasto sakonak uzten zituzten zalgurdiak. Ez zidaten uzten kalean jolasten, gure patio zabalean nahikoa leku zegoen eta toki segurua omen zen. Baina noizean behin karaka bortitza entzuten nuen kanpoan, berehala ozenago eta aztoratuago bihurtzen zen karaka. Luze gabe jantzi beltz zarpaildua zeraman gizon bat sartzen zen laster batean karakaka eta dardarka atetzarretik, kaleko haurregandik ihesian. Orpo orpo zituen denak atzetik, *Kako! Kako!* oihi eta karaka egiten zuten oiloak antzeratuz. Oiloen beldur zen gizona, eta horregatik jazartzen zitzaizkion. Urrats gutxiko aldearekin zihoan haien aurretik, eta oilo bihurtzen zen gizon hura nire begien aurrean. Bortizki egiten zuen karaka, beldur etsiak hartuta, eta

hegan egin nahi balu bezala eragiten zien besoei. Arnasestuka igotzen zituen aitonaren etxeko eskailerak, baina ez zen inoiz ausartu sartzen, albo batera jauzi egin eta etzanda geratzen zen isil-isilik. Haurrak atetzarraren ondoan geratzen ziren karakaka, ez zuten patiora sartzeko baimenik. Gizonak han etzanda hil plantak egiten zituenean, haurrak apur bat beldurtzen ziren, eta ospa egiten zuten. Baina kanpoan euren garaipen kantuari ekiten zioten laster: *Kako la gallinica*, *Kako la gallinica*, “Kako oiloa”, “Kako oiloa”. Kantua entzuten zen artean, isil-isilik geratzen zen Kako etzanda. Kantua isildu ahala bat-batean altxatzen zen, soina haztatu, ingurua arduratsu ikuskatu, adi-adi geratzen zen aldi batez izututa eta, orduan, isilgordean irteten zen patiotik makur-makur. Oilo izateari utzia zion, ez zien hegoei eragiten eta ez zuen karakarik egiten; auzoko astakirten jipoitua zen berriro.

Batzuetan haurrak zelatan geratzen zitzaizkion kalean ez oso urrun, eta berriz hasten zen atzera jolas makurra. Gehiengentan beste kale batera joaten ziren, eta ez nuen besterik ikusten. Agian erruki nuen Kako, izutu egiten nintzen beti jauzi egiten zuenean, baina inoiz ez ninduen asebetetzen, beti irrikan behatzen nuen nola bihurtzen zen oilo beltz erraldoi. Ez nuen ulertzen zergatik jazartzen zitzaizkion haurrak, eta jauzia egin ondoren lurrean isil-isilik zetzanean, beldur nintzen ez zela inoiz altxatuko eta berriro oilo bihurtuko.

Oso zabala da Danubio Bulgariako behe-ibilguan. Beste ertzeko hiria, Giurgiu, Errumania zen. Handik etorri zen, ziotenez, bularra eman zidan inudea. Baserritar sendo eta osasuntsua omen zen, eta berekin ekarri zuen umea ere elikatzen zuen aldi berean. Gorazarre hitzak entzuten nituen beti hura aipatzen

zutenean, eta inudea gogoan ez badut ere, oihartzun goxo bat piztu du beti *errumaniar* hitzak nire baitan.

Urte bakan batzuetan izozten zen guztiz Danubio neguan, eta istorio kitzikagarriak kontatzen ziren horren gainean. Gaztaroan sarri igaro zen ama lera gainean Errumaniara, horretarako janzen zituen larru-geruza beroak erakusten zizkidan. Oso hotz zenean otsoak jaisten ziren menditik eta, gosez akabatzen zeudenez, lerak herrestan zeramatzaten zaldiei erasotzen zieten. Zigorra dantzatzuz saiatzzen zen gidaria otsoak uxatzen, baina horrek ez zuen ezertarako balio eta tiro egin behar zitzairen. Halako bidaia batean konturatu ziren ez zutela armarik hartu. Etxean zerbitzuan genuen zirkasiar batek lagundu behar zien armatuta, baina azkenean ez zen agertu eta hura gabe abiatu zen gidaria. Lanak izan zituzten otsoen erasoetatik gordetzeko eta arrisku handian izan ziren. Beste noranzkoan halabeharrez bi gizonezko zeramatzan lera bat etorri ez balitz eta haiek otso bat tirokatu eta besteak uxatu ez balituzte, ez ziratekeen onik aterako. Izuak airean eduki zuen ama, otsoen mihi gorriak deskribatzen zituen; hainbeste hurbildu zitzaizkion, non askoz geroago ere amesgaiztoak baitzituen horren kontura.

Arren eskatzen nion maiz istorio hura kontatzeko, eta gustura egiten zuen. Horrela, otsoak izan ziren nire irudimena bete zuten lehen piztiak. Baserri-neskatxa bulgariarren ipuinek elikatzen zuten otsoei nien izua. Neskata haietako bospasei genituen beti etxean. Oso gazteak ziren, hamar edo hamabi urte izango zituzten, beren gurasoek herrixketatik hirira ekarri eta neskame jartzen zituzten kaletarren etxeetan. Oinutsik ibiltzen ziren etxean, beti aldarte onean, ez zuten zeregin askorik eta elkarrekin egiten zuten dena, nire lehen jolas-lagunak izan ziren.

Gurasoak arratsean kalera irteten zirenean, neskatzekin geratzen nintzen etxean. Sofa turkiar baxuak luze-luze bermatzen ziren egongela zabaleko paretetan. Nonahi zeuden tapizak eta mahai txiki bat salbu, sofa haiek ziren gogoan dudanez gela hartako altzari bakarrak. Iluntzen zuenean beldurtu egiten ziren neskatzak. Leiho baten ondoko sofan pilatzen ginen estu-estu hartuta, erdi-erdian kokatzen ninduten, eta orduan gizotsoen eta banpiroen istorioak kontatzen zituzten. Bat amaitu ahala heltzen zioten hurrengoari, beldurgarria zen, eta, hala ere, ederki asko nengoen alde guztietatik neskatzek estuki inguratuta. Izuizutan geunden, inor ez zen ausartzen altxatzera, eta gurasoak etxera itzultzen zirenean, mordoxka batean bilduta aurkitzen gintuzten lo.

Entzun nituen istorio guztien artetik gizotsoei eta banpiroei buruzkoak bakarrik geratu zaizkit gogoan. Agian ez zuten besterik kontatzen. Balkanetako ipuin-bildumaren bat eskuetan hartu ahala ezagutzen ditut istorioetako batzuk. Ipi-apa guztiekin ditut gogoan, baina ez entzun nituen hizkuntzan. Izan ere, bulgarieraz entzun nituen, baina alemanez ezagutzen ditut, itzulpen miragarri hori da agian nire haurtzaroko gertakizun bitxienetako bat, eta haur gehienen hizkuntz ibilbidea bestelakoa izaten denez, zerbait esan beharko nuke agian horri buruz.

Gurasoek alemanez egiten zioten elkarri, ez nuen euren artekoa ulertzeko baimenik. Haurrekin eta senide eta lagun guztiekin judu gaztelaniaz mintzatzen ziren. Hori zen benetan lagunarteko hizkera arrunta, antzinako espainiera zen halere; geroago ere sarri entzun dut, eta ez dut inoiz ahaztu. Etxeko baserri-neskatzek bulgarieraz baino ez zuten jarduten, eta haiekin ikasi nuen batez ere hizkuntza hura. Baina inoiz eskola bulgariarrera joan ez nintzenez eta sei urterekin Rustschuketik

alde egin nuenez, aurki galdu nuen guztiz hizkuntza. Espainieraz edo bulgarieraz bizi izan nituen lehen urte haietako gertakizun guztiak. Baina alemanera itzuli zaizkit gero gehienak. Gertakari bereziki dramatikoak soilik geratu zaizkit gogoan ahoskera espainiarrean, erailketak eta heriotzak, esaterako, eta izu larrienak, baina horiek guztiak zehatz-mehatz eta era ezabaezinean. Alemanez daukat gogoan beste guztia eta, beraz, gehiena, bulgarieraz bizi nuen guztia bereziki, ipuinak barne.

Ezin dut zehazki argitu nola gertatu zen. Ez dakit noiz edo zer abagunetan itzuli zaidan kontu hau edo bestea. Ez dut inoiz aztertu gorabehera hori, agian beldur nintzen nire oroitzapen preziatuenak deuseztatuko nituela printzipio zorrotzen arabera gidatutako azterketa metodiko bat aurrera eramanez gero. Gauza bakarra esan dezaket segurtasunez: gogoan ditut bizi-bizirik urte haietako oroitzapenak, hirurogei urte luzez elikatu naute, baina orduan ezagutzen ez nituen hitzekin daude lotuta oroitzapenok hein handi batean. Berezkoa iruditzen zait orain haiek idatziz ematea, ez dut uste hori egiterakoan ezer aldatzen edo desitxuratzen dudarik. Ez da hizkuntza batetik besterako literatur itzulpen bat, berez inkontzientean gertatu zitzaidan itzulpena baizik –barka bekit “inkontziente” hitz hori kasu bakar honetan erabiltzea, bestelakoan erabiliaren erabiliaz guztiz higatu den hitz horretatik nola izurritik begiratzen banaiz ere.

#### ARMENIARRAREN AIZKORA

#### IJITOAK

Marrazketa topografikoaz gozatzera emana da errazkiro Stendhal *Henry Brulard* lanean, baina nik ez dut horrelako gaitasunik,

eta beti izan naiz zoritxarrez marrazkigile eskasa. Beraz, labur deskribatuko dut nola zeuden antolatuta Rustschukeko gure etxebizitzak patioaren inguruan.

Atetzar handia zeharkatuz kaletik patiora sartzerakoan braust egiten zenuen topo eskuinean aitona Canettiren etxearekin. Beste etxeak baino itxura dotoreagoa zuen, garaiaogo ere bazen. Baina ez dut gogoan bigarren solairu bat ote zuen, beste etxeek ez bezala. Dena den, garaiaogo zirudien, eskailera luzeagoa zuelako etxera igotzeko. Beste etxeak baino argiaogo ere bazen, agian kolore argitsuz zegoen margotuta.

Aitonaren etxearen parean, atetzarraren ezkerretara, izeba Sophie aitaren arreba nagusiaren eta osaba Nathan senarraren etxea zegoen. Eliakim zen osabaren abizena, ez nuen gogoko, arrotza iruditzen zitzaidan agian, beste abizen guztien doinu espainiarrik ez zuelako. Hiru seme-alaba zituzten, Régine, Jacques eta Laurica. Azken hori, gazteena, ni baino lau urte zaharragoa zen, eta ondorio guztiz galgarria izango zuen gero adin alde horrek.

Etxe horren ondoan zegoen gurea, lerroz lerro jarraituz, patioko ezkerreko partean hori ere, aitonaen etxearen antzekoa oso. Eskailerak zituzten biek ala biek, goian bi etxeetara zabaltzen zen atari arkupea zegoen.

Oso zabala zen hiru etxe horien arteko barne-lorategia, ur-putzua zegoen gure parean, ez erdi-erdian, pixka bat albo-ratuta baizik. Ez zen oso emankorra eta ur gehiena edukiontzi izugarrietan ekartzen zuten astoek Danubiotik. Ur hura ezin zen erabili aurretik egosi gabe eta gero pitxar handietan uzten zen atarian hozten.

Ur-putzuaren atzean zegoen fruitu-ortua, patiotik landaresi batez bananduta. Ez zen bereziki ederra, erregularregia

zen, agian ez zen nahikoa zaharra, amaren ahaideek askoz ere fruitu-ortu ederragoak zituzten.

Eraikinaren alde estuenean zegoen fruitu-ortu handitik etxera sartzeko atea. Gero atzeraka hedatzen zen asko, eta beheko pisu hori bakarrik zuen arren, oso zabala ikusten dut etxea oroimenean. Fruitu-ortuaren alde urrunenean etxeari bira osoa emateko aukera zegoen, etxearen luzeari jarraiki, horrela sukalderako sarrera zuen atzealdeko patio txikiagora iritsiz. Han egurra zegoen ebakitzeko, oiloak eta antzarak zebiltzan harat-honat, beti zegoen zer egin sukalde irekian, sukaldariak gauzak ateratzen zituen edo gauzak sartzen zituen, eta dozena erdi neskato jauzika zebiltzan lanpetuta.

Zerbitzari bat aritzen zen egurra egiten sukaldeko patio horretan, hori geratu zait gogoan batez ere; nire laguna zen, armeniar goibela. Ulertzen ez nituen baina bihotza urratzen zidaten abestiak abesten zituen egurra egitean. Amari galde-tu nionean zergatik ote zegoen hain goibel, esan zidan jende gaiztoak armeniar guztiak akabatu nahi izan zituztela Istanbulen, han galdu zuela familia osoa. Ezkutaleku batetik ikusi omen zuen nola hil zioten arreba. Ondoren Bulgariara egin zuen hanka eta aitak jaso omen zuen etxean errukituta. Egurra egiten duenean, arreba ei du beti gogoan, eta horregatik abesten ditu abesti goibel horiek.

Nahitasun handia hartu nion. Egurra egiten zuenean, egongela luzearen amaierako sofan paratzen nintzen zutik, leihoak sukaldeko patiora ematen baitzuen. Leihorantz makurtzen nintzen beha-beha, eta abesten zuenean, haren arreba nuen gogoan eta arrebatxo bat desiratzen nuen. Bibote luze beltzak zituen eta ilea arbeltza bezain beltza eta oso luzea zela begitantzen zitzaidan, agian aizkorari goi-goian heltzen zionean behatzen niolako. Txelebon saltokiko langilea baino

gehiago maite nuen, hura gutxitan ikusten bainuen. Hitz gutxi batzuk trukutzen genituen, oso gutxi, ez dakit zein hizkuntzatan. Baina nire zain egoten zen egurra egiten hasi aurretik. Ni ikusi ahala, irribarre arin bat egiten zidan eta aizkora altxatzen zuen, eta izugarria zen nolako amorruekin jotzen zuen egurra. Orduan kopeta iluntzen zitzaion eta abesti haiek abesten zituen. Aizkora jaisten zuenean, irribarre egiten zidan berriro, eta haren irribarrearen zain izaten nintzen hura nire zain izaten zen bezala, nire bizitzako lehen iheslaria.

Ostiralero etortzen ziren ijitoak. Ostiraletan prestalanak egiten ziren etxe juduetan sabbata ospatzeko. Etxea burutik buztanera garbitzen zen, neskaxa bulgariarrak hara eta hona zebiltzan, mugimendu handia izaten zen sukaldean, inork ez zuen astirik niretzat. Bakar-bakarrik egoten nintzen eta zain, egongela erraldoian lorategira ematen zuen leihoari itsatsita aurpegia, ijitoak noiz etorriko. Haien izu-laborrian bizi nintzen. Uste dut neskaxak izan zirela sofan ilunpetan igarotako arrats luzeetan ijitoez mintzatu zitzaizkidanak. Uste nuen haurrak lapurtzen zituztela eta ziur nintzen jomugan nindutela.

Baina hainbesteko izua nien arren, ezin nion haiek ikuskatzeari utzi, ikuskizun bikaina eskaintzen zuten. Patioko atetzarra irekita egoten zen haientzat, lekua behar baitzuten. Leinu oso bat balira bezala etortzen ziren elkarrekin, patriarka itsua erdialdean zut-zutik, aitonen aitona, esan zitzaidanez, agure eder ilezuria, oso poliki ibiltzen zen bi iloba nagusietan eskuin eta ezker berme hartuta eta jantzi koloretsuetan bilduta. Adin guztietako ijitoak etortzen ziren hari estuki lotuta, gizon gutxi, ia denak emakumeak, eta umeak ezin konta ahala, txikitxoak euren amen besoetan, besteak ingu-



ruan jauzika, baina agure harrotik asko urrundu gabe, hura zen beti erdigunea. Segizio hark trinko-trinkoa ematen zuen, inoiz ez nuen ikusi hainbeste gizaki elkarri estu-estu hartuta aurrerabidean; eta gainerakoan ere koloretsua zen hiri hartako gauzarik koloretsuena zen hura. Haien jantzietako adabakiak kolore guztietan egiten zuten dir-dir, baina batez ere gorria nabarmentzen zen edonon. Askok zakuak zituzten bizkarrean bilinbolaka, eta ezin nien begiratu haien barruan lapurtutako umeak zeudela irudikatu gabe.

Konta ezin ahal ijito zirela iruditzen zitzaidan, baina haie-taz dudan irudian orain kopurua estimatzen saiatuko banintz, ez dut uste hogeita hamar edo berrogei baino gehiago izango zirenik. Dena den, inoiz ez nuen hainbeste pertsona ikusi patio handian, eta hain poliki mugitzen zirenez agurearen urratsei jarraiki, iruditzen zitzaidan tarte azkengabea betetzen zutela patioa. Baina ez ziren han geratzen, etxeari bira egiten zioten sukaldeko patio txikiraino, egurra moztuta zegoen lekura, eta han geratzen ziren.

Zain egoten nintzen patioko atetzarrean agertzen ziren arte, eta agure itsua ikusi ahala, korrika zeharkatzen nuen egongela luzea eta hura sukaldearekin lotzen zuen korridore are luzeagoa etxearen atzeko alderantz *zinganas! zinganas!* garrasika. Han izaten zen ama sabbateko jakiei buruzko jarraibideak ematen, amak berak prestatzen zituen zenbait gutizia berezi. Sarri, bidean topatzen nituen neskatxei ez nien kasurik egiten, garrasi batean jarraitzen nuen amaren ondora heldu arte, eta amak hitz lasaigarri batzuk esaten zizkidan. Baina amaren aldamenean geratu beharrean, bide luze osoa egiten nuen berriro atzera, ijitoen ibilbidea ikuskatzen nuen leihotik, pixka bat aurreratu ziren ordurako, eta horren berri ematen nuen berriro sukaldean. Haiek ikusi nahi nituen, gogo hartuta nindukaten, baina

haiek ikusi ahala izuak harrapatzen ninduen berriro, jomugan nindutelakoan, eta ospa egiten nuen oihuka. Horrela ibiltzen nintzen tarte batez joan-etorri, eta uste dut horregatik gorde izan dudala bi patioen artean hedatzen zen etxearen zabalaren sentipen bizi-bizia.

Sukaldearen pareko helmugara iristen zirenean, agurea eseri egiten zen eta besteak inguruan biltzen zitzaizkion, zakuak irekitzen zituzten eta emakumeek opariak jasotzen zituzten liskarrik gabe. Egur puska handiak biltzen zituzten, oso gurako zituzten horiek, jatekoak ere ugari. Prest zegoen janariaren zati bat jasotzen zuten, ez zitzaizkien soberakinak ematen inondik ere. Lasaitu egiten nintzen zakuetan umerik ez zutela ikustean, eta amaren babesean ibiltzen nintzen haien artean, baina ongi begiratzeko nintzen laztandu nahi ninduten emakumeengana asko hurbiltzetik. Agure itsuak azpil batetik jaten zuen, deskantsuan zegoen eta astiro ekiten zion. Besteek ez zuten jatekorik ukitzen, dena zaku handien barruan desagertzen zen, eta umeek bakarrik zuten baimena eskaintzen zitzaizkien gozokeriak hortzikatzeko. Harritu egiten ninduen zein onberak ziren euren umeekin, ez zuten ume-lapur gaiztoen itxurarik. Baina horrek ez zuen uxatzen beldurra. Izugarri luzea iruditzen zitzaidan tarte igaro ondoren abiatzen ziren, segizioa etorreran baino pixka bat azkarrago mugitzen zen etxearen jiran patioa zeharkatuz. Lehengo leihotik behatzen nuen nola desagertzen ziren atetzarrean zehar. Orduan azkenekoz joaten nintzen korrika sukaldara: “Ijitoak joan dira”; eskutik heldu eta atetzarrera eramaten ninduen zerbitzariak hura ixtera: “Horrela ez dira itzuliko”. Patioko atetzarra irekita egoten zen egunez gainerakoan, baina ostirale-tan itxi egiten zen, horrela jakiten zuen ondoren etor zitekeen

beste ijito talde batek han egonak zirela euren leinukoak, eta aurrera egiten zuten geratu gabe.

#### ANAIAREN JAIOTZA

Lehen-lehen denbora haietan, haur-aulki garai batean egoten nintzanean, iruditzen zitzaidan zorua oso urrun zegoela, eta erortzeko beldur nintzen. Osaba Bucco, aitaren anaia zaharrena, bisitan etortzen zen, aulkitik altxatzen ninduen eta lurrean ezartzen. Orduan aurpegiera serioa jartzen zuen, eskua zabal buru gainean ezartzen zidan eta esaten zuen: *Yo ti bendigo, Eliachicu, Amen!*, “Bedeinkatzen zaitut, Elias txikia, amen”. Oso modu kementsuan esaten zuen, gustuko nuen doinu hotsandiko hura, uste dut iruditzen zitzaidalda nagusiagoa nintzela bedeinkatzen ninduenean. Baina adar-jotzaile bat zen eta barre egiten zuen berehala; sumatzen nuen nire bizkar egiten zuela barre, eta bedeinkapenaren une handiaren ondoren, behin eta berriz heltzen nionez amu horri, lotsa-lotsa geratzen nintzen.

Egiten zuen guztia hainbat aldiz errepikatzen zuen osaba hark. Abestitxo asko irakasten zizkidan eta ez zen baretzen haiek nire kabuz abesteko gai nintzen arte. Hurrengoan etortzen zenean, abestiez galdetzen zidan eta eraman handiz prestatzen ninduen nagusien aurrean abesteko. Haren bedeinkapena espero nuen, hori berehala zapuzten zuen arren, eta bere buruari pixka bat eutsi ahal izan balio, nire osaba maitatuena izango zatekeen. Varnan bizi zen, aitonaaren negozioak han zuen egoitzaren buru zen, eta festa egunetan eta abagune berezietan baino ez zen etortzen Rustschukera.